

GAZTEEN KATEKESIA - "HONELA BIDALTZEN ZAITUZTET"

HELBURUAK

1. Pertsona bakoitzak Ebanjelioa ezagutu, onartu eta ezagutzera eman behar duela ikusi.
2. Elkarteak, misiolariak bidaltzen dituela jakin. Pertsona horiek fedearen unibertsaltasuna eta poztasuna erakusten digute.
3. Gazteak konpromisoa hartzera bultzatu.

IKUSI

1.- Saioaren hasieran, ondorengo galderak egingo ditugu: nola ikusten duzue zuen burua 10 edo 15 urte barru? Zeintzuk dira zuen ereduak?... Lagun bakoitzak galdera hauen inguruko iritziak emango ditu.

Ondoren, elkarrizketan sakontzeko, beren bizitzako une hauetan aurkituko dituzten bide desberdinak aurkeztu taldeari, izan ere, horien inguruan erabakiren bat hartu beharko dute noiz edo noiz: dirua irabazi, eragina izan, elkartasuna, zuzentasuna, gizartean parte hartzen duten hiritarrak izan (maiatzaren 15eko mugimendua, GGKEak,...), boterea, ospea, axolagabekeria, pasotismoa, gizartea, mundua... lekuan lekutik maila globalera aldatzen saiatu,...

- Familia: nolakoa izango ote da familiarekiko harremana?,...
- Adiskideak: zein adiskide aukeratuko dut?,...
- Karrera, heziketa: zein irizpidetatik aukeratuko dut nire heziketa?,...
- Gizartea: nola parte hartuko dut?,...
- ...

2.- Elkarrizketan azaldu diren balio eta irizpideen inguruan gogoeta egin, orain hartutako erabakiek ondorioak izango dituztelako etorkizunean.

EPAITU: EBANJELIOA EZAGUTU ETA ONARTU

Jesusek dei egiten digu eta 'zatoz' esaten digu:

"Etorri eta ikusi" (Jn 1, 39); "Zatoz eta jarraitu niri" (Mt 19, 21); "Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok" (Mt 11, 28). Bere maitatzeko erara erakartzen ditu, bere barnekotasunean gaitzen ditu eta Espiritu Santuarekin gantzutuz bidaltzen ditu,... "Berak nahi zituenei dei egin zien, berarekin bizitzeko eta Berri Ona hots egitera bidaltzeko" (Mk 3, 13 eta hur.).

Gure erantzuna: *entzutea*

"Zorionekoak Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak" (Lk 11, 28); "Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarreei esaten diena" (Ap 2, 7).

Bidalketa: 'zoazte'

"Zoazte mundu guztian zehar et ahots egin Berri Ona" (Mk 16, 15); "Besteentzat" izatea da Jesus biltzen duen eta guri oparitzen digun misiolari Espirituaren oinarri suspertzailea: "Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet" (Jn 20, 21).

- ✓ Jesusengandik entzun dugun mezuak Elizaren misioarekin lotuta egon behar du: txirotasunaren ondorioak –desnutrizioa, gaixotasunak, gabeziak hezkuntzan,...- larriagoak diren herrialdeetako gizakien bizi baldintzak hobetu... Funtsezkoa da, aldi berean, gizakiaren osoko ontasuna ahalbideratzea: "gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira eta ez da gizakiarenik ezer, haien bihotzean oihartzunik ez duenik" (GS, 1).
- ✓ Garai berrian bizi gara eta Jainkoaren begiez begiratu behar diogu. Gure munduari begirada positiboaz begiratu behar diogu: "Jainkoak hain maite izan zuen mundua non bere Seme bakarra eman baitzion... betiko bizia izan dezan" (Jn 3, 16 eta hur.). Eta beste batzuekin batera egin behar dugu bidea, Jainkoaren maitasunaren aztarnak gure inguruko bihotzean eta gure bizigiroetan aurkituz.

- ✓ “Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet” (Jn 20, 21) da aurtengo Domund eguneko goiburua eta honek durundi egin behar du gure bihotzean: Jaunak geu bidaltzen gaitu geure kristau hirira, munduaren erdian, kristau maitasunez, Jainkoaren testigantza ematen duten lekuko argitsu izan gaitzen. Bide honetan, errazena (misioa bertan behera utzi, ohikerian jausi, konpromiso sakonik ez hartu,...) aukeratzeko tentazioa izan dezakegu. Jainkoaren deiak bakarrik berritzen du egunez egun Misioa.

Misiolarien testigantzak:

Jesus ezagutu duten eta ikusi eta entzun dutenaren berri ematen duten lekukoak daude. Manu eta Eguzkineren testigantza eskainiko dizuegu. Bilboko Elizbarrutiko bi gazte hauek 2010eko otsailan Jesusen bidea, balioak eta irizpideak bere egin zituzten eta Misioetara joan ziren. Gaur egun Ekuadorren daude.

“Eguzkine Arrigorriagakoa da eta 27 urte ditu. Eskaut talde baten hasi zen eta erantzukizun desberdinak izan zituen bertan. Heziketa jaso eta bereizketa egin ondoren, Misioetara joateko urratsa eman zuen. Manu, Algortako 28 urteko gaztea da, mundu honetan konprometitzeko gogoia erakutsi du beti eta aurretik eskaut taldeetan eta politika arloan jardun zuen. Misioetarako Bilboko Elizbarrutiko Ordezkaritzan egon zen.

Hauxe diote:

Eguz: “Neu naizena eman nahi diet: nire alaitasuna, harremanak izateko erraztasuna, erraz egokitzea, baikorra izatea”.

Manu: “aldaketarako ilusioa, indarra, samurtasuna eman nahi diet. Elkarri eskua eman eta zuzentasunaren bidetik aurrera egitea da kontua. Jesusi jarraitu, zuzentasunez jantzitako bidetik. Eguneroko lana ilusioz egin”.

Manu eta Eguz: “eskuzabaltasuna, harrera, elkarbanatzea, konpromisoa, borroka eta antolakuntza dira Ekuadorreko gizon eta emakumeen balioak. Ez dira babesgabeak, indar asko dute jasaten duten zapalketazko egoeratik irteteko. Askok dute guri erakusteko. Bizitzaren puzzlearen beste pieza batzuk dira; pieza horiek uztartuko ditugu eta beren seinalea utziko digute. Azkenean, horrela osatzen gara pertsona bezala. Beren fede bizipena guztiz desberdina da eta alderdi hori garrantzitsua da”.

Bukatzeko, hauxe diote: “zuzentasunaren aldeko lana Hegoaldean bezain garrantzitsua da Iparraldean. Denok dugu zerbait emateko. Elizbarrutietako misioak euskal Elizaren konpromisoa dira; Eliza honek bidaltzen gaitu, txirotuekiko eta Hegoaldeko herrialdeekiko konpromisoaren zeinu bezala. la gazteren batek gurekin bidea egiten duen!”.

‘Los Ríos’ aldizkaria, 235. alea, 34-35 or.

EKIN: EZAGUTZERA EMAN

Saioaren hasieran, galdera egin dizuegu; hausnartutako guztiaren ostean:

Zein da nire erantzuna? Zein nire konpromisoa? ... Eta misiolari izateaz, zer?

Jarri ondoren, hausnarketa honen ostean egingo duzun ibilbidea (bakarka landu ondoren, batera jarriko dugu)

Adina	Familia	Adiskideak	Hezi./Ogibidea	Gizartea	Beste batzuk
12 urte					
16 urte					
20 urte					
23 urte					
25 urte					

Domund eguneko eukaristia prestatuko dugu: sinboloak, otoitzak, abestiak... eta bakoitzak bere konpromisoa aurkeztuko du.

CATEQUESIS JOVENES - "ASI OS ENVIO YO"

OBJETIVOS

4. Descubrir que cada persona está llamada a *conocer, acoger y dar* a conocer el Evangelio.
5. Reconocer que los y las misioneras son enviadas por la Comunidad; en esas personas se refleja la universalidad de la Fe.
6. Motivar a los jóvenes a realizar un compromiso.

VER

1.- Para comenzar la sesión se plantean las siguientes preguntas: ¿Cómo os veis dentro de 10 o 15 urte? ¿Cuáles son vuestros modelos a seguir?,...Cada persona expresa lo que le sugieren estas preguntas.

A continuación, para profundizar en el diálogo presentar al grupo los diferentes caminos que en estos momentos de su vida se van a encontrar y sobre los que tendrán que decidir: Ganar dinero, tener influencia, la solidaridad, la justicia, ser ciudadanos y ciudadanas participativas en la sociedad, (el Movimiento 15 mayo, las ONGDs), poder, prestigio, la indiferencia, el pasotismo, intentar cambiar la sociedad, el mundo, desde lo local a lo global,...

- Familia: ¿cómo será mi relación con la familia?,...
- Amistades: ¿qué amistades voy a elegir?,...
- Carrera, formación,..¿con que criterios voy a elegir mi formación?, ...
- En la Sociedad, ¿cómo va a ser mi participación?,...
- ...

2.- Reflexionar sobre los valores y criterios que han salido en el diálogo porque las decisiones que se toman ahora tienen consecuencias en su futuro.

JUZGAR: CONOCER Y ACOGER EL EVANGELIO

Jesús llama y dice *Ver*:

"Venid y lo veréis" Jn 1, 39; "Ven y sígueme" Mt 19, 31; "Venid a mi todos los que estáis cansados y agobiados" Mt 11, 28; Los introduce en su querer, los capacita en su intimidad y los envía con la Unción del Espíritu Santo,...: "Los llamó para estar con Él y para enviarlos a predicar con poder" Mc 3, 13 y ss."

Nuestra respuesta: *La Escucha*:

"Dichosos los que escuchan la Palabra de Dios y la cumplen" Lc 11, 28; "El que tenga oídos, oiga lo que el Espíritu dice a las Iglesias" Ap 2, 7;

El Envío: *Id*:

"Id al mundo entero y predicad" Mc. 16, 15; El ser "para las gentes" es principio dinamizador del Espíritu misionero que envolvía a Jesús y que El nos regala, "Como el Padre me ha enviado, así también os envío yo" Jn 20,21.

- ✓ El mensaje que hemos oído de Jesús debe de ir unido como misión de la Iglesia a la mejora de las condiciones de vida de las personas en países en los que son más graves los fenómenos de pobreza: desnutrición, enfermedades, carencias en la educación,... también es esencial procurar el bien integral de la persona "nada hay verdaderamente humano que no encuentre eco en el corazón de los discípulos de Cristo" (G.S.1) procurando condiciones de libertad, justicia, paz y promoción humana "la Iglesia ha de ir hacia todos con la fuerza del Espíritu" 1ª Cor 2, 5, buscando la Gloria de Dios: "OH Dios, que te alaben los pueblos, que todos los pueblos te alaben Salmo 66, 4.
- ✓ Vivimos en una nueva época, a la que hay que mirar con los ojos de Dios. Hemos de mirar este mundo nuestro con una mirada positiva: ("Tanto amo Dios al mundo... que le envío a su Hijo... para salvarlo" Jn 3, 16 y ss) y se ha de caminar con los demás descubriendo las huellas del amor de Dios en el corazón de los que nos rodean y en los ambientes donde nos movemos.

- ✓ El lema de este Domund “Así os envío yo como el Padre me ha enviado” (Jn 20,21), debe sonar en nuestros oídos de una forma personal: El Señor nos envía a nosotros y a nuestra Cdad. Cristiana a ser, en medio del mundo, los testigos luminosos que, por el amor cristiano, den testimonio de Dios. Es un camino en el que existe la tentación de optar por lo fácil (abandonar la misión, caer en la rutina, no implicarse a fondo, etc.) Solo la llamada de Dios hace nueva la Misión cada jornada.

Testimonios de misioneros y misioneras:

Hay muchos testigos, que han descubierto a Jesús y dan fe de lo que han visto y oído. Os ofrecemos el testimonio de Manu y Eguzkine, jóvenes de la Diócesis de Bilbao que en Febrero del año 2010 tomaron el camino de Jesús, sus valores y criterios les llevaron a dar el paso de ir a Misiones y se encuentran en Ecuador.

“Eguzkine es una joven de 27 urte de Arrigorriaga que comenzó en el escultismo, teniendo en él diferentes responsabilidades. Junto con la formación y el discernimiento le ayudaron a dar el paso de ir a Misiones. Manu es un joven de Algorta de 28 urte con ganas de comprometerse con este mundo, proviene también del escultismo y del compromiso político. Trabajó en la Delegación Diocesana de Misiones de Bilbao.

Ellos nos transmiten:

Eguz: “Quiero aportarles lo que soy yo, alegre, sin problemas a la hora de entablar relaciones, me amoldo fácil, soy positiva.”

Manu: “Quiero aportarles ilusión por el cambio, energía, ternura. Se trata de darnos la mano y avanzar en un camino de justicia. Seguir a Jesús a través de ese camino de justicia. Aportar ilusión en el trabajo diario”

Manu y Eguz: “Los valores de las gentes de Ecuador son la generosidad, la acogida, el compartir, su compromiso y su lucha, su organización. No son desvalidos, tienen el mayor potencial para cambiar la situación de opresión que viven. Tienen mucho que enseñarnos. Son otras piezas del puzzle de la vida, iremos encajando y dejaran su seña. Al final así nos vamos haciendo como personas. Su vivencia de la fe es muy distinta y ese aspecto es muy importante”.

Para terminar nos dicen: “La labor por la Justicia es tan importante en el Norte como en el Sur. Todos tenemos que aportar. Las misiones diocesanas son un compromiso de la iglesia vasca, vamos enviados por esta Iglesia, es un signo de su compromiso con los empobrecidos y con los países del Sur. Que se anime algún joven para ir a hacer camino con nosotros”.

Revista Los Ríos nº 235, Pág. 34-35

ACTUAR: DAR A CONOCER

Al comenzar la sesión os hemos lanzado una pregunta, después de todo lo que he hemos reflexionado:

¿Cuál es mi respuesta? ¿Cuál es mi compromiso? ¿....Y ser misionero o misionera?,...

Plasma en el grafico el itinerario que vas a seguir después de lo que hemos reflexionado (Trabajar el gráfico de manera individual y ponerlo en común)

Edad	Familia	Amistades	Form./Profesión	Sociedad	Otros
12 años					
16 años					
20 años					
23 años					
25 años					

Preparamos la Eucaristía del Domund, símbolos, oraciones, cantos,...y presentamos nuestro compromiso personal.